

GINARRIZKO BALIABIDEAK

Rain Energy proiektua garatzeko, oinarritzko baliabide sendoak behar ditugu, bai ekonomikoki bai teknikoki. Gure helburua ez da produktu bat saltzea soilik, baizik eta epe luzeko proiektu iraunkor bat sortzea, energia garbia sortzeko eta gizarteari onurak ekartzeko. Horretarako, negozio-plan ona behar dugu, eta finantzakuntza-iturri desberdinak erabiliko ditugu, hala nola gure aurrezkiak, inbertitzaileen ekarpenak, dirulaguntzak eta banku-maileguak.

Lortzen ditugun baliabide ekonomikoak gure produktua garatzeko, hobetzeko eta merkatura eramateko erabiliko ditugu. Rain Energy-ren helburu nagusia energia berriztagarria sustatzea da, baina baita lanpostuak sortzea, teknologia berritzailea erabiltzea eta eraginkortasuna handitzea ere, ingurunea errespetatuz. Gure proiektuak honako hauek bilatzen ditu: energia berriztagarria sustatzea, enplegua sortzea, ekonomia lokala indartzea, teknologia berritzailea erabiltzea eta eraginkortasuna eta iraunkortasuna bermatzea.

Canvasen “Funtsezko baliabideak” atalean, garrantzitsua da ez bakarrik diruari buruz hitz egitea, baizik eta zehazki azaltzea zer baliabide fisiko, teknologiko eta pertsonal beharko dituen proiektuak. Adibidez, behar dira instalazio edo kokapen fisiko bat, ur-biltegi txikiak, turbinak, hodiak eta sentsoreak; gainera, baliabide intelektual eta teknologikoak ere behar dira, hala nola uraren aprobetxamendurako sistemaren diseinu teknikoa, software propioa, planoak, algoritmoak eta marka bera. Horrez gain, garrantzitsuak dira ingeniari mekaniko eta elektrikoak, mantentze-langileak, marketin arduraduna eta administrazioa. Azkenik, finantza-baliabideek proiektua garatu, hobetu eta mantentzeko aukera ematen digute, prototipoak sortzea eta operazioak finantzatzeko.

Kontzeptu orokor batzuk erabil daitezke (adibidez, enpresek baliabide teknologikoak etengabe hobetu behar dituztela), baina garrantzitsua da hori Rain Energy-ren kasura ekartzea: guk ere gure aprobetxamendu-sistema hobetzea bilatzen dugu, energia-galerak murriztuz eta diseinu eraginkorrak eginez. Horrez gain, gure produktua etengabe hobetzea, teknologia berriak txertatzea, eraginkortasuna handitzea, bezeroen beharrak kontuan hartzea eta iraunkortasuna bermatzea helburu ditugu.

Ez da nahikoa baliabideak edukitzea; garrantzitsua da hauek nola erabiltzen ditugun jakitea. Batzuetan, baliabide batzuk kanpoko enpresen esku uztea erabaki dezakegu. Horri externalizazioa deitzen zaio eta honako abantailak ditu: kostuak murrizten laguntzen du, gure enpresak garrantzitsuen diren zereginetan zentratzeko aukera ematen du eta espezialista profesionalen lana aprobetxatzea ahalbidetzen du. Aldi berean, gastuak kontrolatzea ezinbestekoa da, eta horretarako merkatuaren azterketa egingo dugu eta baliabide bakoitza arduraz erabiliko dugu, alferrikako gastuak saihestuz.

Iraunkortasuna da gure oinarrietako bat. Horregatik, baliabideak berriztagarriak izatea bilatzen dugu, ingurunea errespetatzen duten materialak erabiltzen ditugu, epe luzera pentsatzen dugu eta kalitatezko produktu iraunkorra sortu nahi dugu. Baliabideak ez dira soilik mantentzeko; hobetzeko ere erabiltzen dira. Enpresa arrakastatsuak etengabe berritzen dira. Adibidez, Google edo Facebook bezalako enpresek etengabe hobetzen dituzte beren baliabide teknologikoak merkatuan lehen postuan jarraitzeko. Rain Energy

proiektuan ere honako hau planteatzen dugu: gure produktua etengabe hobetzea, teknologia berriak txertatzea, eraginkortasuna handitzea, bezeroen beharrak kontuan hartzea eta iraunkortasuna bermatzea.

Azkenik, kontuan hartu behar dugu baliabide funtsezkoak direla proiektuaren oinarria. Horregatik, ez dira edozein modutan ordezkatu behar: baliabide bat ordezkatu behar bada, aztertu egin behar da zergatik, ordezkatzeko arrazoia hobekuntza izan daiteke, edo bestela, negozio-eredua aldatzen ari garela adierazten du.

Amaitzeko, esan daiteke Rain Energy-proiektuaren arrakasta baliabideak nola kudeatzen ditugunaren arabera dela. Gure helburua ez da irabaziak bakarrik lortzea, baizik eta etorkizun garbiago, jasangarriago eta hobeago bat eraikitzea.